

Merka2dasoa bigarren eskuko BIZIKLETEN azokak

PARTEHARTZEKO ARAUDIA

ERAKUNDE ANTOLATZAILEARI BURUZ

- Merka2dasoa bigarren eskuko merkatuen helburu nagusia sortzen ditugun hiri-hondakinen prebentzioa indartzea da, herritarrei berrerabilera praktikatzeko topagune bat emanez, eta bigarren eskuko merkatuei duintasuna eta prestigioa emanez. Horregatik, salgai jartzen diren patinete elektriko eta bizikleta guztiek erabiliak eta egoera onean egon beharko dute. Ezingo da material berririk edo stock-materialik saldu.
- Antolatzaileak web orri bat jarriko du eskuragarri, izena emateko.
- Azokaren egunean antolakuntzak hesidun gune bat mugatuko du, patinete elektrikoak eta bizikletak erakusteko euskarriak jartzeko, baita sarrera/irteera kontrola eta salerosketarako kutxa hartuko dituen informazio-puntu bat ere.
- Ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileak hurrengo merkatuetan ez onartzearen bidez zigortzeko eskubidea gordetzen du organizazioak, interes berezia jarritz objektu berririk ez egoteko, puntualtasuna, ordutegiarekiko errespetua eta datuen faltsutasuna.

SALTZAILEEI ETA EROSLEEI BURUZ

- Parte hartzeko, hitzordua eskatu behar da patinete elektriko edo bizikleta erregistratzeko www.txinzer.eus webgunean. Gainera, webgune honetan, saltzaileak patinete elektrikoak eta/edo bizikletak saldu nahi dituen adina fitxa beteko ditu. Fitxa horretan datu pertsonalak, saldu beharreko objektuei buruzko informazioa eta salmentarako ezarritako prezioa eskatuko dira.
- Patinete elektrikoaren eta/edo bizikletaren salmenta-prezioa 600 €-koa izango da gehienez.
- Baieztatzeko modua: aurretiko hitzorduaren plataformak automatikoki erantzuten du inskripzioa zuzena bada.
- Izena emateko epea amaitu egingo da plazak agortzen badira edo irailaren 16an (asteazkena).
- 120 plaza daude patinete elektriko eta/edo bizikletentzako.
- Parte-hartzea doakoa da.
- Salgai jartzen diren patinete elektriko eta bizikleta guztiek erabiliak eta egoera onean egon beharko dute. Ezingo da material berririk saldu, stockekoa...
- Saltzaileek eta erosleek antolakuntzak patinete elektrikoaren edo bizikletaren inskripziorako, erregistrorako eta salerosketarako ezarritako prozedurari jarraituko diote.
- Antolakuntzak ez du eskainiko eramango diren patinete elektrikoak eta bizikletak kargatzeko eta deskargatzeko autoak aparkatzeko.
- Aldez aurretik hitzordua hartu eta joaterik ez badago, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio antolakuntzari, 900119384 telefonora deituta (irailaren 18ko 12:00ak baino lehen).
- Antolakuntzako langileei baimena emango zaie beren patinete elektrikoaren edo bizikletaren argazkiak egiteko, bai eta argazki horiek ekitaldiaren jarraipenarekin eta zabalkundearekin lotutako helburuetarako erabiltzeko ere.